



Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritzak jakinarazten du Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru- eta berraseguru-banatzailleen administrazio-erregistroan erregistratutako aseguru-banatzailleen 2025eko ekitaldiko estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioa (EKD-2025) telematikoki izapidetzeko aplikazio informatikoa erabilgarri egongo dela 2026ko **martxoaren 25etik maiatzaren 8ra bitartean**, biak barne. Salbuespen gisa, Sail honetan izapide hori gaitzeko erregistratutako arazo teknikoak direla-eta, aurtan egun batzuk luzatu da aurkezteko emandako epe normalizatua.

Izapide horren bidez, erregistro autonomikoan inskribatutako aseguru-banatzailleek urteko estatistika- eta kontabilitate-aitorpena aurkeztu ahal izango da; horretarako, eredu gaituak daude, banatzaile-mota bakoitzari egokituak.

Estatuko Administrazio Orokorrek estatistika- eta kontabilitate-informazioaren dokumentazioaren (EKD) ereduak eguneratu ditu abenduaren 23ko ECM/1501/2024 Aginduen bidez (aseguru-artekariaren, berraseguru-artekariaren, lotutako aseguru-agenteen eta banku-aseguruen operadoreen estatistika- eta kontabilitate-ereduak onartzen dituen). Gogorarazten dugu agindu hau Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Estatuko Erregistroan inskribatutako aseguru-banatzailleei soilik aplikatzen zaiela; beraz, ez zaie aplikatzen erregistro autonomikoan inskribatutako banatzailleei, oinarritzko izaerarik ez duen araudia baita.

Aplikaziora Ogasun eta Finantza Sailaren ataritik sartuko da, euskadi.eus atariaren bidez, honako bide honi jarraituz:

www.euskadi.eus → *Eusko Jaurlaritza* → *Sailak eta erakundeak* → *Ogasuna eta Finantzak* → *Finantza-politika eta gizarte-aurreikuspena* → *Aseguru-bitartekariak* → *Estatistika- eta kontabilitate-adierazpenaren fitxategia* *egiteko* *aplikazioa* *deskargatzeko* *informazioa*.
[Aseguru- eta berraseguru-banatzailleen erregistrotik](#) ere sar daiteke zuzenean. Erregistro horretan daude betetzeko jarraibideak.

Estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioa deskargatu eta bete ondoren, Eusko Jaurlaritzara bidaliko da esteka honen bidez: [Eusko Jaurlaritzara bidaltzea](#).

Ahalik eta arretarik handienarekin jarduteko, EKD-2025 betetzean edozein gorabehera edo zalantza sortuz gero, honako helbide honetara bidali beharko da lehentasunez: mediadoresdeseguros@euskadi.eus. Zalantzak ahalik eta lasterren argituko dira.

Era berean, kontsulta informatikoak (sarbidea, deskarga, identifikazioa, etab) Eusko Jaurlaritzaren Erabiltzaileen Arretarako Zentrora (EAZ) zuzendu ahal izango dira, 945 01 68 38 telefono-zenbakira, kontsulta aseguru-bitartekariaren aplikazioari buruzkoa dela adieraziz (P06b – Aseguru-bitartekariak).

Ziurtagiri digitalak indarrean egon behar dutela berresten dizuegu. Hau da, bai aplikaziora sartzeko, datuak sartzeko eta EKD bidaltzeko Erabiltzailearen Eskuliburuko aurretiazko betekizunen atalean ezarritakoaren arabera onartutako ziurtagiriei dagokienez, bai <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/> arabera onartutako ziurtagiri digital pertsonalei dagokienez.

Azkenik, adierazi nahi dizuegu Euskadiko Bitartekariaren Elkargoek zurekin lankidetzan jardun dezaketela estatistika- eta kontabilitate-informazioa prestatzen eta Eusko Jaurlaritzari bidaltzen.

Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko zuzendaritza